




## 2021-2023 ETXEBIZITZAREN GIDA PLANARI BURUZKO EBAZPEN-PROPOSAMENAK


1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio datozen 15 urteetarako Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna sustatu dezala, politika iraunkor eta partekatu baten garapenean aurrera egingo duena, epe luzera irauteko asmoarekin, etxebizitzaren arloan lan egiten duten eragile guztiak integratuz indarrak eta borondateak batzeko bi erronka nagusiri aurre egiteko: arazoizko prezioa alokairuko etxebizitzaren parkea bikoiztea eta etxebizitza birgaituen kopuruan jauzi kualitatibo eta kuantitatibo handia ematea.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Zerga Koordinaziorako Organoaren esparruan, alokairu-prezioei eusteko balizko zerga-neurriei buruzko txosten bat egitea planteatzeko (pizgarri eta zigor fiskalen bidez). Txosten horretan, gainera, egungo zerga-pizgarrien azterketa eta ebaluazioa jasoko da. Txosten horren emaitzak Zerga Koordinaziorako Organoari berari helaraziko zaizkio, kontuan har ditzan eta Eusko Legebiltzarrari bidaliko dira, jakinaren gainean egon daitezten.
3. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio itun fiskal bat bultzatzea, etxebizitzaren arloko politika fiskala 2021-2023 Etxebizitza Plan Zuzentzailearen helburuekin lerrokatu ahal izateko, arreta berezia jarriz Foru-Aldundien eskumeneko alokairurako eta birgaitzerako PFEZren pizgarri fiskaletan.
4. Alokairu pribatuaren prezioak arautzeari buruzko etorkizuneko estatu-araudiak aukera ematen duenean alokairu pribatuaren prezioak kontrolatzeko sistema bat abian jartzeko, Eusko Legebiltzarrak horri buruz hartutako erabakiekin bat etorri eta euskal errealitatearen berezitasunetara egokituta.
5. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hiri-berroneratze integraleko jarduketak bultzatzea, ingurumen, gizarte, ekonomia, hiri eta gobernantzako alderdiak jorratuz, zehazki, auzo zaurgarrietan epe luzera esku hartzeko programa baten esparruan.
6. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Udalei laguntzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko neurriak ezar ditzala, etxebizitza hutsen






inventarioak abian jar ditzaten eta etxebizitza hutsak Bizigune programara mobilizatzeko programak gauza ditzaten.


7. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Bizigune programa eta ASAP programak bultzatzen jarrai dezala, etxebizitza hutsak alokairu eskuragarri bideratzeko, hutsik dauden etxebizitza kudeagarrien bolumena murrizteko, Bizigune programaren barne sartuz halaber, egoera okerrenean dauden etxebizitza hutsak birgaitzeko pizgarriak eta laguntzak, programa honetan sar daitezten
8. Eusko Legebiltzarrak, ganbera honetan onartutakoaren ildotik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio alokairu-merkatuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko dispositibo bat sortzea ahalbidetuko duten esku-hartzeak ezar ditzala, merkatu horren errealitateari buruzko azterketa zehatzak eginez eta tentsio-eremuak mugatzea erraztuko duten tresnak ezarriz, haien beharretara egokitutako neurri espezifikoak aplikatzea egokia den udalerririk eta lurralde-eremuak identifikatzeko.
9. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio alokairuaren prezioei eusteko sistemen eraginkortasuna eta eragin potentziala azter ditzala, alokairu libreko etxebizitzaren prezioaren gehiegizko igoera eragozteko, jabeentzako zerga-pizgarrien bidez.
10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio babes publikoko etxebizitza-parkea handitzen jarrai dezala, alokairuaren aldeko apustu eskusiboa eginez, bai Sailaren sustapen-jardueran, bai horri atxikitako VISESA sozietate publikoaren sustapen-jardueran.
11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio arrazoizko alokairuko etxebizitzak susta ditzala lankidetzaren publiko-pribatuko mekanismo berrien bidez, sustapen, kudeaketa eta titulartasun pribatuko etxebizitza-parke alternatibo bat sortzea ahalbidetzeko, edo epe luzera Etxebizitza Sailburuordetzari lagata, alokairu babestura bideratzeko.
12. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio zuzkidura-bizitokien parke bat sustatzen jarrai dezala, erakundeen arteko lankidetzaren indartuz, bereziki Udalekin, egoera ahulenean dauden edo alokairuko etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dituzten biztanle-taldeei erantzuteko.






13. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio bultzada handiagoa eman diezaiola elkarlaneko etxebizitzaren sustapenari, belaunaldien arteko proiektuei eta etxebizitza-forma berrien sustapenari, aukera hori bereziki interesgarria izan baitaiteke biztanle-kolektibo jakin batzuentzat, beren bizi-ibilbidearen unearen arabera, kooperatiben eta irabazi-asmorik gabeko beste elkarte-modu batzuen bidez.
14. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio alokairu babestua sustatzeko despopulazioak eragindako eremuetan eta landa-inguruneetan.
15. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio EBtik datozen Next Generation funtsek datozen urteetan izango duten aukerari erantzun diezaiola, Euskadiko eraikinen eta etxebizitzaren parkea birgaitzeko sustapenean jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa lortzeko, bereziki energia-eraginkortasunaren eremuan, horrela klima-aldaketaren aurkako borrokako helburuei laguntzeko.
16. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio birgaitze-laguntzen programa publikoak indartu ditzala eta tresna finantzario eta ez-finantzario berriak sor ditzala, Euskadiko bizitegi-eraikinen parkea eraldatzeko eta birgaitze-politikak ikuspegi multidimentsional baten inguruan artikulatzea sustatzeko, eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna, klima-inpaktuaren murrizketa eta berrikuntza jorratuko dituenak.
17. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko bizitegi-eraikinen parkea birgaitzeko epe luzeko plangintza-mekanismoak ezar ditzala, 2050erako ezarritako neutraltasun klimatikoaren helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko.
18. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio irisgarritasuna birgaitze-politiken oinarritzko eta zeharkako elementu gisa txertatzeko, eta etxebizitzetan irisgarritasunaren kontzeptu berri bat bultzatzeko, Irisgarritasun Unibertsalaren Euskal Estrategiaren postulatuaren ildoan, oztopo fisikoak kentzetik harago doana.
19. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio herritar guztiek baldintza berdinetan erabil ditzatela hiri-ingurunea eta udal-eraikin






publikoak, espazio horietan igogailuak instalakuntza lehentasunez sustatuz, esku hartze garestienak baitira.


20. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Bizitegi Irisgarritasunaren Ziurtagiria diseinatu eta ezar dezala, irisgarritasun unibertsala sustatzeko funtsezko elementu gisa eta kalitate-label gisa
21. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio parekatu ditzala alokairuaren merkatura bideratzeko etxebizitzak birgaitzeko laguntzak, ohiko etxebizitzarako aurreikusitakoekin. Gainera, laguntza horiek bateragarriak izango dira alokairua sustatzeko programetan aurreikusitako laguntzekin.
22. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezar dezala alokairuko parke publikoaren energia-trantsizioko eta irisgarritasuneko plan integrala, zeinaren azken helburua da Alokabide parkeko eraikinen energia-kontsumo ia nulua lortzea epe ertain/luzera.
23. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berrikuntza ezar dezala birgaitzeko esku-hartzeen kudeaketa eta plangintza hobetzeko, arrazionalizatzeko eta optimizatzeko, eskaeren kudeaketa arinduz eta erraztuz.
24. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio herritarrei errehabilitazioaren arloan arreta- eta aholkularitza-zerbitzu hobeto bat eskaintzea, udalekin, mankomunitateekin eta birgaitze-sozietateekin lankidetzan arituz, datozen urteetan ezarri beharreko politiken eta programen kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia handiagoa lortzeko.
25. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskadiko alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren erabiltzaileei aholkularitza eta laguntza emateko e-Lagun zerbitzua gara dezala energia-homiduren kudeaketan, baldintza ekonomiko eta ingurumen-baldintza onenak bermatzeko eta kontsumo-ohitura eraginkorrak sustatzeko.
26. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio birgaitzearen arloan lan egiten duten eta, atzerapen handiak gogor kolpatu zituen, eraikuntza sektorea osatzen duten enpresa txiki eta ertainak eta langileak laguntzea, plan honek planteatzen dituen birgaitze-helburuen areagotzeak dakartzan







erronkei aurre egin ahal izan dezaten, horrela kalitatezko enplegu egonkorra sortzen lagunduz.

27. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio azterlanak eta ikerketa-proiektuak egin ditzala eraikitako parke babestua optimizatzeko bere hiru erronka estrategikoetan (zerbitzu integral aurreratua, etxe osasungarri eta irisgarriak, parke hornitu eta eraginkorra).
28. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eraikinen inspezio teknikoak birgaitze-politikaren elementu nagusi gisa bultzatzea eta erraztea, udalekiko jarraipen-lana indartuz, legezko betebeharrak betetzen laguntzeko eta birgaitze helburu kolektiboen lorpenean aurrera egiteko, esku-hartzeen kopuruari zein norainokoari dagokienez.
29. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gaztelagun indartzeko apustuarekin jarrai dezala datozen urteetan. Izan ere, programa horrek eraginkortasun handia erakutsi du, lan-egoera prekario bati eta etxebizitza eskuratzeko ahalegin ekonomiko nabarmen bati aurre egin behar dioten, diru-sarrera txikiak dituzten euskal gazteen emantzipazio-prozesuetan.
30. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio hobetu ditzala alokairuko parke publikoko etxebizitzak eskuratzeko baldintzak eta esleitzeko prozedurak, gizarte-profil desberdineko kolektiboen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, bereziki gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktimak, edonola ere, ghettoak sortzea saihestuz.
31. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa ezartzen jarrai dezala, kolektibo eta biztanleria-talde berriei eskubide horren onarpenean aurrera eginez.
32. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria Etxebizitza Sailburuordetzaren eskumeneren eta kudeaketa propioaren barruan sartzeko erronkari heltzeko, gainerako prestazioekiko osagarritasun- eta koordinazio-mailak hobetuz, batez ere Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoarekin, batera alokairuan bizi diren 30.000 familia bereziki kalteberei baino gehiagori lagundu ahal izateko.





33. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio etxebizitza-premia berezia duten kolektiboek (etxegabeteak, energia-pobrezia, etxegabetasuna) arreta emateko ekintzekin jarraitzea eta, hala badagokio, indartzea, premia bereziko egoeran dauden pertsonen zuzenean esleitzeko kupoen aldeko apustua sendotuz.
34. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Hirugarren Sektorea gizarte-laguntza duten etxebizitza sozialen sare baten garapenean sar dezala (errefuxiatuak, Housing First, etxegabetasuna, genero-indarkeria, zahartzea), bizitegi-bazterkeriako egoeran dauden kolektiboek erantzuna ematea zuzendua egongo dena.
35. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eraikuntzaren eta birgaitzearen kalitatea, berrikuntza eta jasangarritasuna sustatzea, ikuspegi berriekin etxebizitzaren diseinuan, arau-aldaketak ahalbidetuz, ekonomia zirkularra sustatuz eta eraikuntzaren kalitate-kontrolari bultzada berri bat emanez.
36. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eraikuntzan, birgaitzean eta, oro har, arkitekturan ikerketa, berrikuntza eta jasangarritasuna sendotzea, EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoarekin lankidetzaren eta Euskadiko Arkitektura Institutuaren bidez hedapenaren bitartez.
37. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eraikuntzaren sektorea eta enpleguaren kalitatea indartzeko, Hezkuntza eta Enplegu Sailekin elkarlanean arituz sektoreari lotutako Lanbide Heziketaren prestakuntza-eskaintza balioesteko, bereziki gazteen eta emakumeen artean, eta Eraikal programa sustatuz.
38. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio eraikuntzako eta birgaitzeko eraikuntza-prozesuen industrializazioa sustatzeko, ikerketa, berrikuntza, prestakuntza eta aplikazio operatiboko ekimen zehatzen bidez eta Eraikal programa indartuz.

EA-NV 

ES-SV 